

# BALIABIDE OSAGARRIAK

---

# Txomin Txiki eta Juana Mari

Hauek biok ziren Ondartzan euren bizitza zeramaten senar-emazteak.

Txomin Txiki zen gizon laburkote, sorbaldazabal, aurpegieder, oso sendoa lanerako, eta guztiz gogo argikoa berez; irakurtzen ondo zekiena, eta koplari ona ardo apurtxo bat lagun zuenean; beti baketsua etxean, eta egunaroko<sup>1</sup> lanetan ondo zuzenduta gauza guztiak edukitzen zituena. Ez zen inoiz mozkortzen, eta emazteagaz haserrerik ere ez zuen eguno<sup>2</sup> izaten. Guayakil-era egin zuen ostera<sup>3</sup> bat gaztetan, eta ezagutzen zituen itsasketako arazoak.

Juana Mari, bere emaztea, zen gizalaba polit, begihandi, argaltxo, errukior eta elizazalea; ondo garbi edukiko zituen beti etxeko zokondoak<sup>4</sup>.

Bazituzten idi bi, behi bat, txahaltxo bat, hegazti asko eta hogeita hamar ardi. Biek barrik ezin zituzten egin baso, soro eta etxeko lan guztiak, eta eurakaz zuten hogei urte zituen otsein edo ogipeko bat, lan guztietan laguntzeko; Martin zuen izena mutil honek, baina behin zaldi gainetik jausi zelako esaten zioten Martin Zaldi ezizena.

Juana Mari egunaroko goizetan joaten zen Mundakan baserritarrak batzen ziren plaza edo enparantzara, esne, arrau-tza, hegazti, sagar edo beste etxean zeuden gauzak saltzera, eta goizetik etxeratzen zen bere diru, orio<sup>5</sup>, okela, ogi eta egun hartan behar ziren gauzakaz. Noizbait eramaten zuen ardo puska bat afalorduan edateko. Soroetan edo basoan lan gogorrik ez bazegoen, ezkaratz eta zokondo guztietako garbitasunak egiten zituen, gauza guztien ardura hartzen zuen, eta guztiari aurpegi ematen<sup>6</sup> zion.

Mundakako gizon aberats batena zen Ondartza etxaguntza, eta senar-emazteek, batak legez besteak, begiratzen zioten ondo dirutxoari, etxesaria<sup>7</sup> ordaindu behar zenean hainbarik aurki ez zitezen.

Horiekaz ardura eta neke guztiokaz ere, Txomin eta emaztea, Martin Zaldiren laguntasunagaz, ondo bizi ziren.

Jose Manuel Etxeita, *Josetxo* (moldatua)

egunaroko<sup>1</sup>:  
eguneroko.  
eguno<sup>2</sup>: egundo.  
oster<sup>3</sup>: bidaia.  
zokondo<sup>4</sup>: bazterra.  
orio<sup>5</sup>: olio.  
aurpegi eman<sup>6</sup>:  
aurre egin.  
etxesari<sup>6</sup>: alogera.

## 1 Erantzun galderei.

- Non bizi ziren Txomin eta Juana Mari? .....
- Haiena al zen etxea? .....
- Non zegoen etxaguntza, Guayakilen ala Mundakan? .....
- Nola ateratzen zuten bizimodua? .....
- Zer da otseina? .....

## 2 Bilatu hitz hauen sinonimoak testuan eta idatzi zein bere lekuan.

- etxalde: .....
- emakumezko: .....
- apur: .....
- bihozbera: .....
- kezka: .....
- nabigazio: .....
- izengoiti: .....
- Zein izengoiti agertzen dira testuan? .....

3 Azaldu azpimarratutakoa zure hitzez.

- «... koplari ona ardo apurtxo bat lagun zuenean...»  
.....
- «... eurakaz zuten hogeitun urte zituen otsein edo ogipeko bat...»  
.....
- «... etxesaria ordaindu behar zenean...»  
.....

3 Bilatu testuan honelako hitz-egiturak.

- ..... *ezkaratz eta zokondo* ..... • ..... *soroetan edo basoan* .....
- ..... • .....
- ..... • .....

4 Idatzi lauki egokian nori dagozkion adjektibo hauek.

**IZAERA:** langilea, garbia, umoretsua, indartsua, baketsua, arduratsua, bihozbera, prestua, argia, behargina.

|                 | IZAERA                  | ITXURA                  |
|-----------------|-------------------------|-------------------------|
| Txomin<br>Txiki | .....<br>.....<br>..... | .....<br>.....<br>..... |
| Juana<br>Mari   | .....<br>.....<br>..... | .....<br>.....<br>..... |

- Bete laukiko **ITXURA** atala testuaren laguntzaz.

5 Markatu aukera egokiak.

- *Josetxo* idatzi zen garaian, euskal hirietan gero eta industria eta etorkin gehiago zeuden.  
Zer islatzen du Etxeitak?  Industria-giroa  
 Baserri-giroa
- Etxeitaren pertsonaiak  xx. mendekoak dira, modernoak.  
 baserritar idealizatuak dira.  
 baserritar arruntak dira.
- Beraz, pertsonaiak eta lekuak  idealak dira.  
 benetakoak dira.

## Piolinak

Amak ikaragarritzko festa antolatu zuen, dena zegoen globoz beteta eta edari-altzaria ere opariz beteta. Nire aita lanetik etorri zen, eta hori asteartea izanda, eta asteartean ez du etxean lo egiten. Egia esan, nahiz eta ez nuen urtebetetzearekin burua jan nahi, Ergelari hainbeste detaile egiteak larritu egiten ninduen.

Ergelak paketeak ireki zituen: *Sky-dancerra*, pistola, pelikula, aitak ekarritako bi muntstro, Luisak oparitutako El Zorroren mozorroa, Piolinen txandala aitonak eresia. Erregeen eguna zirudien hark!

Eskerrak gauza zertxobait okertu zen *Zorionak zuri* abestu ondoren: Ergelak esan zuen ez zuela nahi Melanik tarta jaterik. Melani haserre bizian jarri zen, Ergelari txupetea kendu zion ahotik eta leihotik bota zuen. Orduan, Ergela negarrez hasi zen torturapean balego bezala eta Melaniren motxila leiho beretik bota zuen. Zeusek, zirkinik egin<sup>1</sup> gabe, muki erraldoi bat atera zuen sudurretik. Nik pentsatu nuen: «Jan dezala, Jainkoarren, jan dezala». Jan egin zuen. Bernabé korrika bizian jaitsi zen kalera Ergelaren txupetea (bere txupete maiteena zen) eta Melaniren motxila berreskuratuzera. Nire amak oihukatu zuen: «Ume hauekin ezin da!». Eta nik pentsatu nuen: «Zergatik dio “hauekin” iskanbila guztia Ergelak sortu badu?», ze nik ondo dakit noiz dabiltzan kokotekoak gure buruen gainetik hegaka. Melanik eta Ergelak leihotik botatuko gauzak eskuetan eduki zituztenean, Bernabék elkarrri musu ematea lortu zuen. Tira, aireari eman zioten.

Ergelak ez zituen jostailuak kaxetatik atera nahi izan. Bere lagunek begiratu baino ezin zieten egin.

–Ez ukitu! –oihukatzen zuen Ergelak, baten batek atzamarra hurbiltzen zuen bakoitzean.

Hala, sofan eseri ziren hirurak zer egin ez zekitela. Bernabék eta nire aitak kantak abesten zizkieten, baina haiek ez zioten bati ere jarraitzen. Nire aitak esan zuen arte:

–Hor konpon!

Eta Bernabérekin El Tropezónera jaitsi zen.

zirkin egin<sup>1</sup>: mugitu.

Elvira Lindo, *Trapu zikinak* (moldatua)

### 1 Erantzun galderei.

- Zer egunetan ez zuen Manolitok gauean aita ikusten? .....
- Zer ospatu zuten Manolitoren etxean? .....
- Nola hartu zuen Manolitok ospakizuna? .....
- Zer gertatu zitzaien Melaniri eta Ergelari? Zer unetan? .....
- Zenbat aldiz joan zen Bernabé kalera? Zertara? .....

### 3 Bilatu testuan eta idatzi.

- Pertsona-izen bereziak: .....
  - Pertsona-izen arruntak: .....
- Zein dira zure ustez pertsonaia nagusiak? .....
- Eta bigarren mailakoak? .....

### 3 Zehaztu eskeman nondik nora doan testuko atal bakoitza eta laburtu.

|                       |                                  |
|-----------------------|----------------------------------|
| Manolito larri dago   | .....<br>.....<br>.....<br>..... |
| Manolito lasaituz doa | .....<br>.....<br>.....<br>..... |
| Festaren gainbehera   | .....<br>.....<br>.....<br>..... |

### 4 Azaldu Manolitoren esamolde hau.

*«... ez nuen urtebetetzearekin burua jan nahi...»*

- .....
- .....
- Egin esaldi bana esamolde hauek azaltzeko.
- Begieztatu jan: .....
  - Idia adar eta guzti jan: .....

### 5 Irakurri.

Umorezko kontaketa konparazio barregarriak eta zoroak dira nagusi.  
Konparazioaren adibide duzu hau: ➡ Erregeen eguna zirudien hark!

- Irakurri egoerak eta markatu goiko esaldiarekin ondoen doana.
- Zure urtebetetzean, koroa bat ipini zizuten eskolan.
  - Askotako hazi zinen eta gurasoek arropa mordoa erosi zizuten.
  - Ingalaterrako erregea telebistan agertu zen.
- Bilatu eta idatzi urtebetetzean ageri den gauza barregarri eta zororen bat.

## Etxemina

Nire lehen ikasturtea zen St. Peter's-en, eta lehen bi asteetan etxemin<sup>1</sup> izugarria jabetu zen nitaz. Guztiz larrituta, amarru<sup>2</sup> bat prestatzen hasi nintzen; egun batzuetarako etxera bidaltzea, besterik ez nuen nahi. Bat-bateko apendizitis-krisi larria nuela sinetsaraztea, horixe nuen buruan.

Gosaria amaituta, gora igo eta gaztaina-koloreko atea jo nuenean, ez nuen sentitu ere egin jagoleak sortu ohi zidan ikara.

–Aurrera! –indartsu jo zuen haren ahotsak.

Zabuka sartu nintzen, eskuak sabelaren eskuinaldera helduta, egiazkotasun hunkigarria emanez.

–Zer duzu? –oihu egin zuen jagoleak, eta haren ahotsaren indarraz dar-dar egin zuten emakume haren bular handiek, gaztanbera erraldoiak bailiran.

–Min dut, jagole andrea –ulu egin nuen–. Min ikaragarria!

Handik ordubetera medikua azaldu zen, saio eta miaketak<sup>3</sup> egin zituen hatzekin nire sabelan eta jagolearekin batera irten zen. Azken hori ordu-erdi geroago itzuli zen, hauxe esateko:

–Zuzendariak zure etxera dei egin du eta ama arratsaldean etorriko zaizu bila.

Horrela, bada, etxera eraman ninduten eta eraikin beldurgarri hartatik urrun, pozaren pozez, ia ahaztu ere egin nuen gaixo-plantak egin behar nituela. Arratsalde horretan Dunbar doktoreak aztertu ninduen. Sabela ukitu eta nik beharrezko alarauak<sup>4</sup> bota ondoren, hauxe esan zidan:

–Itxurak egiten ari zara, ezta? –esan zuen.

–Nolatan dakizu? –aurpegiratu nion.

–Sabela bigun-bigun duzulako, eta guztiz normal –erantzun zuen–. Pentsatzen dut zuk duzuna etxemina dela –gaineratu zuen berak–. Jende guztiak sentitzen du hori hasieran –esan zuen–. Kanpora atera behar duzu. Eta ez bota errurik amari barnetegi batera eraman zaituelako.

–Zer esan behar diezu barnetegikoei? –galdetu nion, dardarka.

–Sabelaldean infekzio larria zenuela, eta tratamendua ematen ari natzaizula –erantzun zuen irribarretsu–. Horrela, etxean eman ahal izango dituzu beste hiru egun. Baina hitzeman iezadazu ez duzula berriro horrelakorik egingo.

–Hitzematen dizut inoiz ere ez dudala berriro egingo –esan nuen.

etxemin<sup>1</sup>: etxetik urrun egoteak sortzen duen tristura.  
amarru<sup>2</sup>: azpijokoa.  
miaketa<sup>3</sup>: azterketa.  
alarau<sup>4</sup>: oihua.

Roald Dahl, *Boy* (moldatua)

### 1 Ordenatu gertakariak zenbaki bidez ordena kronologikoan.

- |  |   |
|--|---|
| <input type="checkbox"/> Etxean hiru egun ematea lortu zuen.         | <input type="checkbox"/> Mutilak ihes egin nahi zuen. |
| <input type="checkbox"/> Zaindariak medikuari deitu zion.            | <input type="checkbox"/> Ama bila joan zitzaion.      |
| <input type="checkbox"/> Dunbar doktoreak egia igarri zion mutilari. | <input type="checkbox"/> Gaixo-plantak egin zituen.   |

**2 Asmatu beste izenburu bat irakurgairako eta laburtu testuko mamia esaldi bakar batean.**

IZENBURUA .....  
MAMIA .....

**3 Berridatzi irakurgaiko esaldi hauek, emandako hitzak erabiliz.**

- «Dar-dar egin zuten emakume haren bular handiek, gaztanbera erraldoiak bailiran.»

.....  
..... *bezala.*

- «Ia ahaztu ere egin nuen gaixo-plantak egin behar nituela.»

..... *-arena egin*

- «Sabela bigun-bigun duzulako, eta guztiz normal.»

..... *bait-*

- «–Zer esan behar diezu barnetegikoei? –galdetu nion, dardarka.»

..... *ea zer*

**4 Bilatu irakurgaiaren izen hauen izenondoak eta eman izenondo horien sinonimo bana.**

- Egiazkotasun ..... *hunkigarria*
- Bular .....
- Gaztanbera .....
- Min .....
- Eraikin .....
- Sabel .....
- Infekzio .....

**SINONIMOAK**

|       |
|-------|
| ..... |
| ..... |
| ..... |
| ..... |
| ..... |
| ..... |
| ..... |
| ..... |

**5 Bilatu testuan bota aditza duten esaldiak eta idatzi. Ondoren, eman kasu bakoitzean aditz horren sinonimoa.**

1. ....
2. ....

1. .... 2. ....

**6 Irakurri, markatu eta erantzun.**

- Irakurri berri duzun testua autobiografikoa da. Zer da narrazio autobiografikoa?

Idazleak beste baten bizitzaren xehetasunak kontatzen dituena.

Idazleak bere bizitzaren xehetasunak kontatzen dituena.

- Zein pertsonatan idatzi du Roald Dahlek? Eman adibide bat.

Lehenengo pertsonan

Hirugarren pertsonan

- Kontaketa autobiografikoetan idazleak bere iritziak ematen ditu. Protagonistak ez du barnetegia gustuko. Bilatu testuan esandakoaren adibideak.

## Erregearen mezularia

Handik egun gutxira erregearen izeba eta Leireko fraidea elkartu ziren, lehenengoaren gelan.

–Nola jakin duzu Antsok fedegabeen lurrera joateko asmoa duela? –galdetu zuen Elvira andreak, ohiko agurren ondoren–. Nik Akitaniatik itzuli eta berehala jakin dut.

–Erregeak ez du Nafarroa utzi behar –bota zuen Johanek galderari erantzun gabe–. Idatzirik dago erregearen etsaiak beraren hutsaz baliatuko direla erresumari erasotzeko.

Elvira andreak keinu egin zuen, haserre. Ez zuen atsegin agurearen tonua. Haren aholkuak beti zuzenak izan baziren ere, fraide ilun bat baino ez zen, eta bera, aldiz, penintsulako errege-etxe kristau nahiz musulman guztiekin zegoen ahaideturik<sup>1</sup>. Hala eta guztiz, beheko ezpainean kosk egin eta keinu batez hitz egiten jarraitzeko adierazi zion.

–Erregea arrisku larrian dago –jarraitu zuen Johan Izabakoak–. Haren lehengusu Alfontso Gaztelakoak, egindako agindu guztiak, sinatutako itunak<sup>2</sup> eta su-etenak gorabehera, ez du emandako hitza beteko eta Nafarroari eraso egingo dio, miruak<sup>3</sup> harrapakinari bezala.

–Matxinoen<sup>4</sup> aurka emandako laguntzaren ordainetan, Yaqub emirrak bere alabaren eskua agindu dio nire ilobari, bai eta penin-tsulako erresuma musulman guztien basailutza<sup>5</sup> ere.

–Antso jaunak ezin ditu bere lurak babesik gabe utzi –ekin zion berriz ere fraideak, kopetilun, eta guztiz ziur.

–Alfontso hitz eman du Antso kanpoan dela haren lurak babestu egingo dituela.

–Gure jauna gizon arrunta da gaztelauaren aginduak sinesten baditu!

–Kontuz! –Elvira andrearen ahotsak gora egin zuen tonuan–. Erregeaz ari zara!

–Erresumarik gabeko erregea ez da errege.

Biak isilik egon ziren puska batean. Elvira andreak ondo zekien fraidearen hitzak ez zirela guztiz okerrak. Ez zen Elviraren beste ilobak, Alfontso, emandako hitza betetzen ez zuen lehenengo aldia.

ahaidetu<sup>1</sup>:  
familiakoa izan edo  
egin ezkontza  
bitartez.

itun<sup>2</sup>: bi alde edo  
gehiagok elkarrekin  
hartutako  
konpromisoa.

miru<sup>3</sup>: hegazti  
harraparia.

matxino<sup>4</sup>:  
boterearen aurka  
altxatzen dena.

basailutza<sup>5</sup>: jaun  
baten babesean  
eta mendean  
jartzen zen  
gizabanakoaren  
nolakotasuna.

Toti Martínez de Lezea, *Erregearen mezularia* (moldatua)

### 1 Erantzun galderei.

- Noren gelan elkartu ziren fraidea eta Elvira? .....
- Nora bidaiatzeko asmoa zuen Antsok? .....
- Noren beldur zen Johan Izabakoak? .....
- Nongo erregea zen Antso? Eta Alfontso? .....
- Zer ahaidetasun zuten Antsok eta Alfontso? .....

## 2 Eman irakurgaiko hitz hauen antonimoak.

- elkartu: ..... *banandu* .....
- galdetu: .....
- etsai: .....
- agure: .....
- kopetilun: .....
- larri: .....
- aurka: .....
- arrunt: .....
- isilik: .....
- oker: .....

## 3 Idatzi irakurgaiko lau pertsonaien izenak. Ondoren, lotu zenbaki bidez pertsonaia bakoitza dagozkion ezaugarriekin.

- .....   Pertsona boteretsua eta handinahia, berak emandako hitza baliogutxikoa omen da.
- .....   Pertsona harroa, besteen aholkuak eta iritziak erraz onartzen ez dituen.
- .....   Agintedun pertsona argia, baina era berean fidakorra.
- .....   Adineko pertsona, jakintsua eta apala.

## 4 Lotu esamoldeak eta esanahiak, eta ondoren, erantzun.

- hitza bete •
- hitzeman •
- hitza jan •
- hitza hautsi •
- hitzari eutsi •
- hitzean egon •
- zerbait egingo dela agindu.
- agindutakoa ez egin.
- agindutakoa egin.
- agindutakoa mantendu.

- Nork eman zuen bere hitza? .....
- Elvirak uste zuen Alfontso hitza beteko zuela? .....

## 5 Azpimarratu irakurgaiko lehenaldiko aditzak urdinez eta bete hutsuneak.

- Elkarriketan aditza ..... agertzen da.
- Narrazioan, berriz, aditza ..... agertzen da.

## 6 Irakurri eta bilatu informazioa.

*Erregearen Mezularia* eleberri historikoa da. Eleberri historikoak lehenaldian idatzirik daude, eta lekuak, pertsonaia eta gertaerak historian oinarrituta egoten dira. Bertan agertzen den Antso erregea Antso VII.a Azkarra izan zen. Bilatu datu hauek eta bete fitxa.

Noiz jaio eta hil zen? .....

Non? .....

Nongo erregea izan zen? .....

Ekintzarik garrantzitsuenak: .....

## Konpainia grisa igaro zenekoa

Konpainia zaldietara igo zen berriz eta Legolasekin itzuli zen Gimli. Ilaran zebiltzan zaldietan, eta arratsaldeak indarra galdu ahala, ilunabarraren urdin indartsua nagusituz zihoran; eta artean beldurra atzetik zuten. Legolas Gimlirekin hitz egiteko bihurtu<sup>1</sup> zen, eta Nanaoak<sup>2</sup> bere aurretik zihoran Elfoaren<sup>3</sup> begi distiratsuak dir-dir ikusi zituen. Atzean Elladan zihoran, Konpainiako azkena; ez, ordea, beherako bidea hartzen azkena.

–Hilak atzetik ditugu –esan zuen Legolasek–. Gizonezkoen eta zaldien itxurakoak ikusten ditut, eta hodei-arrastoak diruditen zutoihal<sup>4</sup> zurbilak, eta lan-tzak gau lainotsu bateko neguko sasiak bailiran. Hilak atzetik ditugu.

–Bai, Hilak gure atzetik datoz zaldiz. Deituak izan dira –esan zuen Elladane.

(...) Bat-batean, atzera begiratu gabe, Aragornek oihu egin zuen ozen, guztiek entzuteko moduan: –Ahaztu zuen nekea, lagunok! Lauhazka denok, lauhazka! Nahitaez Erecheko Harrira heldu beharra dugu eguna amaitu baino lehen, eta oraindik bide luzea dugu aurretik.

Konpainia Grisa igarotzean, etxeetako eta herrixketako argiak itzaltzen ziren, ateak ixten eta zelaietan lanean zeudenek oihu egiten zuten, beldurraren beldurrez, bai eta ihes egin ere, jazarritako<sup>5</sup> oreinen moduan. Leku orotan aldarri bera entzun zitekeen gero eta ilunagoa zen gauean: –Hilen erregea! Hilen erregea gainean dugu!

Urruti eta han behean kanpaiek jotzen zuten, eta denek ihes egiten zuten Aragornen aurpegia ikustean; baina Konpainia Griseko zaldizkoek aurrera egiten zuten, ehiztariak bezain arin, eta zaldiak, neka-neka eginda, estropezu egiten hasi ziren. Horrela, doi-doi gauerdia baino lehen, eta mendietako haitzuloak bezain beltza zen iluntasunean, Erecheko mendixkara heldu ziren azkenik.

bihurtu<sup>1</sup>: buelta eman.  
 nano<sup>2</sup>: gizaki txiki-txikia.  
 elfo<sup>3</sup>: izaki fantastikoa.  
 zutoihal<sup>4</sup>: bandera eramangarria.  
 jazarri<sup>5</sup>: eraso.

J. R. R. Tolkien, *Eraztunen jauna III: Erregearen itzulera* (moldatua)

### 1 Erantzun galderei.

- Zer zen Gimli?  Elfoa       Nanao
- Non zen azkena Elladan?  Bidean     Konpainian
- Zer esan zien Aragornek beste guztiei?  Azkarrago joateko       Katuka joateko
- Zerk izutzen zuen jendea?  Erecheko Harriak       Konpainia Grisak
- Zer egin zuen Legolasek Gimlirekin hitz egiteko?  Bilakatu       Buelta eman
- Noiz iritsi ziren Erecheko mendixkara?  Eguna bukatzeaz zela       Ilunabarrean

**2 Bilatu hitz hauen sinonimoak irakurraian eta lotu dagokizkien antonimoekin.**

|                                    |   |           |
|------------------------------------|---|-----------|
| bukatu = ..... <i>amaitu</i> ..... | • | • hurbil  |
| lekutan = .....                    | • | • motel   |
| garrasi = .....                    | • | • hasi    |
| bizkor = .....                     | • | • xuxurla |
| izu = .....                        | • | • gutxitu |
| gailendu = .....                   | • | • adore   |

**3 Bilatu testuan ikusmenarekin eta entzumenarekin zerikusia duten zenbait hitz.**

| IKUSMENA | ENTZUMENA |
|----------|-----------|
| .....    | .....     |
| .....    | .....     |
| .....    | .....     |
| .....    | .....     |

**4 Lotu esamoldeak eta esanahiak.**

|                  |                                      |
|------------------|--------------------------------------|
| ferratu •        | • zaldia abiada bizian joan          |
| trostaka joan •  | • gizakiaren esanetara jarri         |
| irrintzi egin •  | • zaldi-hotsa egin                   |
| lauhazka ibili • | • zaldi-ibilera ez azkarra ez geldoa |
| bezatu •         | • ferrak apatxetan jartzea           |
| jauzi egin •     | • salto egin                         |

**5 Berridatzi esaldiak esamoldeen laguntzaz.**

- Hilak atzetik ditugu –esan zuen Legolasek. .... *zituztela.*
- Jendeak oihu egiten zuen, beldurraren beldurrez, bai eta ihes egin ere, jazarritako oreinen moduan. .... *balira*
- Leku orotan aldarri bera entzun zitekeen gero eta ilunagoa zen gauean. .... *iluntzen ari*
- Atzean Elladan zihoan, konpainiako azkena; ez, ordea, beheko bidea hartzen azkena. .... *baina*

**5 Irakurri eta erantzun.**

- Azalpen limurtzaileetan azalpena ematen duenak zuzen hitz egiten die hartzaileei, haien izena aipatuz. ....
- Aginterako formak erabiltzen dira. ....
- Badu hizlariak nagusitasuna entzuleengan irakurraian? ..... Zergatik? .....

## Lurraren bihotzeraino

Izututa gaude, arnasa hartzeko ere kemenik gabe. Badatoz; gainean ditugu. Batetik krokodiloa eta bestetik sugea. Beste mamuak<sup>1</sup> ezkutatu egin dira. Tiroa botatzera noa. Ez. Hans-ek geldi nadin agintzen dit. Bi mamuak almadiatik<sup>2</sup> 100 metrora pasatu dira. Bata bestearen aurka borrokan hastera doaz. Gutaz ahaztu direla dirudi.

Bi mamuak elkarri helduta kolpeka ari dira. Baina, dirudenez, beste munstroak ere etorri dira borrokan parte hartzera. Mazopa<sup>3</sup>, balea, muskerra eta apoarmatua<sup>4</sup> ere hemen dira. Noiznahi ikus ditzakegu. Islandiarrari erakusten dizkiot. Baina honek, buruari eraginez:

–«Twa» –dio.

–Nolatan? Bi bakarrik?

–Arrazoi du, Axel –argitzen dit osabak–. Munstro horietako batek mazoparen ahoa, muskerraren burua eta krokodiloaren hortzak ditu. Garai bateko iktiosauro beldurgarria da.

–Eta bestea?

–Bestea, apoarmatuaren maskorpean ezkutututako suge bat da; iktiosauroaren etsarik amorratuena; plesiosauroa. (...) Bi munstroek haserre bizian erasotzen diote elkarri. Txistu-hots ikaragarriak aditzen ditugu. Hozka ari dira, eta irabazlearen beldur gara.

Ordubete igaro da. Beste bat ere bai. Borrokalariai almadiara inguratu eta urrutiratzten ari dira. Halako batean, iktiosauroa eta plesiosauroa ur azpira ezkutatu dira, zurrunbilo<sup>5</sup> bat ondoren dutela. Minutu batzuk igaro dira. Borroka hondoan bukatuko ote dute?

Bat-batean, buru handi bat agertzen da ur gainean. Plesiosauroarena da. Heriozko zauria du. Urak indar handiz astintzen ditu.

Gero, narrastia emeki-emeki motelduz doa. Heriotza hurbil du. Astinaldiak bukatu dira. Suge-gorputz handia ur gainean etzanda geldi dago. Baina iktiosauroaz zer? Itsaspeko zuloetan ezkutatu ote da? Hurbilduko ote zaigu berriro?

mamu<sup>1</sup>: munstro handia.  
almadia<sup>2</sup>: enbor-plataforma.  
mazopa<sup>3</sup>: ugaztun zetazeoa.  
apoarmatu<sup>4</sup>: dortoka.  
zurrunbilo<sup>5</sup>: ur-masa biratzailea.

Jules Verne, *Lurraren bihotzeraino* (moldatua)

### 1 Erantzun galderei.

- Zerk izutu ditu Hans eta besteak? .....
- Zertan ari dira mamuak? .....
- Zenbat munstro daude? Zein dira? .....
- Zein munstroren burua dauka iktiosauroak? .....
- Zenbat ordu igarotzen dira mamuak almadiara inguratu arte? .....
- Zein mamu hil da? Nola? .....

**2** Azpimarratu testuan ageri diren animalia guztiak. Ondoren, azaldu nolakoak diren munstro hauek.

- Iktiosaurora ➡ .....
- Plesiosaurora ➡ .....

**3** Berridatzi esaldi hauek.

- «Izututa gaude, arnasa hartzeko ere kemenik gabe.»  
.....
- «Tiroa botatzera noa.»  
.....
- «Mazopa, balea, muskerra eta apoarmatua ere hemen dira. Noiznahi ikus ditzakegu.»  
.....
- «... iktiosaurora eta plesiosaurora ur azpira ezkutatu dira, zurrumbilo bat ondoren dutela.»  
.....

**4** Osatu ariketa adibideari jarraituz.

- |                                      |                  |
|--------------------------------------|------------------|
| • kolpe ➡ ..... <i>kolpeka</i> ..... | • hortz ➡ .....  |
| • txistu ➡ .....                     | • kurrin ➡ ..... |
| • tiro ➡ .....                       | • ehun ➡ .....   |
| • ezkutu ➡ .....                     | • katu ➡ .....   |

**5** Idatzi laukian testuko aditz guztiak.

|   |
|---|
| <p><i>badatoz, gaude,</i></p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> |
|---|

- Inguratu ekintza adierazten dutenak.

**6** Aukeratu galdera bakoitzaren erantzun zuzena

- Nolako kontaketa da testukoa?
  - Kontaketa belikoa
  - Abentura-kontaketa
- Nolakoa da kontaketa eritmoa?
  - Arina
  - Motela
- Zertarako erabiltzen da eritmo hori?
  - Tentsioa sortzeko
  - Barre eragiteko
- Nork kontaktzen du abentura?
  - Narratzaile ezezagun batek
  - Pertsonaietako batek
- Nolako aditzak daude batez ere?
  - Ekintzazkoak
  - Egoerazkoak

## Esku leuna

Izarpe, Julen Sarasketaren landetxea, Igeldo azpian zegoen, bost urte lehenago eraikia. Gaur ere Donostiako txaletetan bikainenetakoren bat dela esanez, ez gara egiatik saihesten.

Julen Sarasketak berritu arte, ordea, borda antzeko etxe handi bat zen.

Hark, berriz, saletxe<sup>1</sup> hura erosi, paretak bota eta berri-berria jaso zuen.

Etxe oso zabala zen, behealde eta bizitza bakarrekoa. Harrinabarrezko sarrerari, grekoen elizatxoaren irudira egina zela antzematen zitzaion. Adreilu gorritz eta harlanduz<sup>2</sup> jantzitako paretak Ingalaterrako etheen goraintzia pizten zuten lehenengo begiradan.

Etxearen bekokian harro-harro Sarasketatarren armarría<sup>3</sup> ageri zen, familiaren jatorri ahaltsua aldarrikatuz.

Etxea apintarrean, atal berdinetan egina zen. Behealdean bisitagela, egongela, liburutegi eta guzti, sukaldea eta langelak zeuden, zein baino zein dotoreago. Goialdean etzauntzak eta bazkalareto nagusia.

Lertxunek eta akaziek itzal goxoa egiten zieten etxalde osoa usain onez betetzen zuten lorategiei. Beste zuhaitz ilun askok eta barruti<sup>4</sup> osoa inguratzen zuen murrak<sup>5</sup> jauregi itxura ematen zioten landetxe hari.

Han sartu eta ez dakit nik nongo ipuin zaharreko bihotz-beheratasuna nabaritzen zenuen.

Etxe aurrealdeko eskuineko ertza albo garai sendo batek estaltzen zuen gudalburu bailitzan. Etxea eta ezkerrean zegoen garajea saiheits-ate baten bitartez elkartzen ziren.

Landetxeko itxituran sartzeko, bi ataletan irekitzen zen eta lau orpo handietan ardaztuta zegoen brontzezko ate handi batetik barna igaro behar zenuen.

saletxe<sup>1</sup>: abeletxea.  
harlandu<sup>2</sup>: silarria.  
armarri<sup>3</sup>: leinu, hiri eta abarren ezaugarri den ezkutu moduko irudia.  
barruti<sup>4</sup>: mugatutako lur-eremua.  
muru<sup>5</sup>: horma sendoa.

Gotzon Garate, *Esku leuna* (moldatua)

### 1 Erantzun galderei.

- Julen Sarasketaren landetxea bost urte lehenago berritu zuten.
- Sarrera grekoen elizatxoaren irudira egina zen.
- Sarasketatarren armarría etxeko atarian zegoen.
- Bazkalareto nagusia sukaldearen ondoan zegoen.
- Lertxunek eta akaziek usain onez betetzen zuten etxalde osoa.
- Etxearen eta garajearen artean saiheits-ate bat zegoen.

**2** Inguratu irakurgaiko etxe-izenak eta ordenatu arruntenetik luxuzkoenera.

• *borda* ..... ➔ *landetxe* ..... ➔ .....  
 ..... ➔ ..... ➔ .....

**3** Azpimarratu irakurgaiko gelen izenak eta lotu bakoitza dagokion esanahiari.

*Bisitagela* ..... • ➔

- Kanpotik datorren jendeari harrera egiteko gela
- Ibilgailuentzako aterpea
- Etzalekua
- Otordu handiak egiteko tokia
- Atsedeen hartzeko lekua
- Etxeko liburuak biltzeko lekua
- Janaria prestatzen den lekua
- Bulegoa

**4** Azaldu. Zer esan nahi dute esaera hauek?

• Etxezulo izan.

.....

• Etxekalte jardun.

.....

• Etxeminez egon.

.....

**5** Asmatu zein zuhaitz mota dauden aldrebestutako hitzetan eta ondoren bilatu letra-zopan.

|   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| A | D | I | A | L | A | O | L |
| U | J | L | L | K | P | A | E |
| N | I | I | A | A | F | Z | R |
| O | E | Z | K | I | A | T | T |
| T | I | A | A | I | T | E | X |
| A | E | R | M | X | U | M | U |
| S | M | R | G | A | L | A | N |
| A | H | A | R | I | T | Z | A |

- ZIARRAL: .....
- HITZARA: .....
- ALAKAM: .....
- ZIAKE: .....
- AZIAKA: .....
- ANTXULER: .....
- ATZEMA: .....

**6** Erantzun galderei.

- Zer deskribatzen du testuak? .....
- Esaldiak, orokorrean, nolakoak dira?  Luzeak       Laburrak
- Deskribapena egiten duen pertsonari, gustatzen al zaio etxea? .....
- Azpimarratu testuan ageri diren ekintzako aditzak. Asko al daude? .....
- Zein da aditzon aspektua?  Bukatua       Bukatugabea

## Xake-taula

Zortzi mirabe beltz jantzi moriskoekin<sup>1</sup> sartu ziren, xake-taula sorbaldan hartuta. Gizon horiek, eta goian zekarten taula, Ibn al Arabi Bartzelonako gobernadore musulmanaren<sup>2</sup> oparia izan ziren.

Arabiar maisu artisauek egin zuten arren, piezetan jatorri indiarreko eta persiarreko zantzuak zeuden. Zenbaiten ustez, xakeak, Kristo jaio baino lehen, bazeramatzan Indian laurehun urte baino gehiago, eta Arabiara heldu zen, Persian zehar, arabiarrek herrialde hori konkistatu zutenean, Gure Jaunaren 720. urtean.

Taula zilarrez eta urrez eginda zegoen, eta metro oso bat zuen alde bakoitzeko. Piezak, filigranatu<sup>3</sup> metal preziatuz eginak, landu gabeko baina tentu handiz distira emandako errubi, zafiro, diamante eta esmeraldaz apainduta zeuden, eta harribitxi horietako batzuk galeper<sup>4</sup>-arrautzen tamainakoak ziren. Patioko kriseiluen argitara dir-dir egiten zutenez, bazirudien distira hori barru-barruko argi batetik zetorrela, eta horrek begira geratzen zirenak liluratzen zituen.

Xah edo errege izeneko pieza hamabost zentimetro altu zen eta gizon koroatu bat irudikatzen zuen, elefante baten bizkarrera igoa. Erregina, dama edo ferza harribitxiz apaindutako esku-aulki itxi batean zihoan. Alfilak edo apezpikuak elefanteak ziren, harribitxi ezezagunez apaindutako zelak zituztenak, eta zaldiak edo zaldunak arabiar zaldi basatiak ziren; dorreei edo gazteluei rujj esaten zitzairen, arabieraz «gurdia» dena. Gamelu erraldoiak ziren, bizkarrean dorre itxurako aulkiak zituztenak. Peoiak infanteriako soldadu apalak ziren, zazpi zentimetroko luzerakoak; bitxi txikiak zituzten begien lekuan, eta haien ezpatetako heldulekuak harribitxiz zipriztinduta zeuden.

Karlomagno eta Garin taulara hurbildu ziren. Monarkak eskua jaso zuen eta beraren hitzek gortesauak aztoratu zituzten, haiek ondo ezagutu arren.

–Erronka botako dizut –esan zuen ahots arraroz. Karlomagnok ez zuen erronkarik egin ohi. Gortesau<sup>5</sup> kezkatu begiratu zioten elkarri-. Garin soldadua nire aurkako partidana gusitzen bada, Akisgrandiek euskal Pirinioetara doan nire erresumako lurraldea eta ezkontzarako nire alaba nagusiaren eskua emango dizkiot. Galtzaile irteten bada, burua moztuko zaio patio honetan bertan egunsentian.

Gortea zur eta lur geratu zen. Guztiek zekiten monarkak bere alabak oso maite zituela eta bera bizi artean ezkon ez zitezen erregutu ziela.

morisko<sup>1</sup>:  
kristautako  
musulmana.  
musulman<sup>2</sup>:  
islamiarra.  
filigranatu<sup>3</sup>:  
urrezko eta  
zilarrezko hariz  
irudi apaingarriak  
egin.  
galeper<sup>4</sup>:  
hegazti  
fasianidoa.  
gortesau<sup>5</sup>:  
gorteko  
kidea.

Katherine Neville, *Zortzia* (moldatua)

### 1 Erantzun galderei.

- Zer zen Arabiren oparia? .....
- Noiz heldu zen xakea Arabiara? .....
- Noren gortean zeuden gortesauak? .....
- Zer irabaz zezakeen Garinek? .....

**2 Markatu hitz pare sinonimoak.**

- zantzu/antz
- tentu/kontu
- distira/destaina
- liluratu/histu
- apal/umil
- aztoratu/trabatu
- ahots/boz
- helduleku/kirten

**3 Azpimarratu testuan ageri diren harribitxi-izenak eta erabili esaldi hauen hutsuneak betetzeko.**

- Zure eraztuneko ..... kolore gorri bizia du.
- Zer kolore dute .....? Urdina, ezta?
- Oz-eko aztiaren mamuak ..... berdeak atsegin zituen.
- ..... mineral guztietan distiratsuen, gogorren eta gardenena da.

**4 Azaldu azpimarratutakoa zure hitzez.**

- «Gortea zur eta lur geratu zen.»

.....

- «... harribitxi horietako batzuk galeper-arrautzen tamainakoak ziren.»

.....

- «... piezetan jatorri indiarreko eta persiarreko zantzuak zeuden.»

.....

**5 Bilatu testuan galderen erantzunak. Nolakoa zen...**

- alfila? ➡ .....
- xah edo erregea? ➡ .....
- zaldia? ➡ .....
- ruj edo dorrea? ➡ .....
- peoia? ➡ .....
- erregina? ➡ .....

**6 Deskribatu zure gogoko objektu bat. Hasi baino lehen, irakurri argibide hauek.**

- Saiatu objektiboa izaten.
- Aipatu objektuaren ezaugarri bereizgarriak.
- Ordenatu ezaugarriak.
- Idatzi adjektibo asko.
- Erabili espazio-lokailuak.
- Hitz espezifikoak erabil daitezke.

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

## Akusazioaren lekukoa

Mayherne jaunak betaurrekoak ondo kokatu zituen, zintzurra<sup>1</sup> garbi-tzen zuen bitartean, bere-berea zuen eztultxo lehorrarekin. Gero, aurrean zuen gizonari begira jarri zen berriz ere. Gizon hura hilketaz akusatuta zegoen.

Mayherne jauna gizon txiki-txikia zen, zehatza keinuetan, janzkeraz garbia eta nabarmen samarra, eta begirada zorrotzeko begi grisak zituen. Ez zen batere kokoloa<sup>2</sup>; aitzitik, ospe handiko abokatua zen. Haren ahotsa, bezeroari hizketan hasi zitzaionean, lehorra izan zen, baina ez zakarra.

–Berriz ere gogoratu behar dizut arrisku larrian zaudela; hori dela-eta, beharrezkoa da al bait garbien jokatzea.

Leonardo Volek, ikusi ere egin ez zuen aurreko hormari begiratzeari utzi, eta abokatuari so egin zion.

–Badakit –esan zuen atsekabeturik<sup>3</sup>–. Behin eta berriz esan didazu. Baina oraindik ezin dut ulertu nola egotzi ahal didaten krimen bat... krimen bat. Eta gainera, hain krimen koldarra<sup>4</sup>.

Mayherne jauna gizon praktikoa zen, eta ez zen erraza ezergatik harritzea. Berrito ez-tarria garbituz, sudur gainean kokatu zituen betaurrekoak berriz ere.

–Bai, bai, bai –esan zuen azkenik–. Orain, Vole jaun estimatua, ahalegina egingo dugu zu salbatzearren... eta lortu egingo dugu... lortu egingo dugu. Baina gertakari guztiak eza-gutu behar ditut. Jakin behar dut zenbateraino zauden tartean sartuta. Orduan, defentsarako modurik onena zehaztu ahal izango dugu.

Gazteak hari begira jarraitu zuen, atsekabea aurpegian. Hasieran, Mayherne jaunak kasuari zail samarra iritzi zion eta ziurtzat jo zuen atxilotua errudun zela; orain, lehenengoz, zalantzak zituen.

–Zuk erruduntzat naukazu –esan zuen Leonardo Volek ahopean–. Baina Jainkoaren izenean zin dagizut ez naizela errudun! Ondotxo dakit dena aurka dudala. Sare batean harapatutako gizona naiz... eta sare-mailek<sup>5</sup> gero eta inguratuago naukate, edonora bihurtuta ere. Baina ez nintzen ni izan, Mayherne jauna, ez nintzen ni izan!

zintzur<sup>1</sup>: eztarria.  
kokolo<sup>2</sup>: ergela.  
atsekabe<sup>3</sup>: sentipen mingarria.  
koldar<sup>4</sup>: ausarta ez dena.  
sare-maila<sup>5</sup>: alanbre-ehuna.

Agatha Christie, *Akusazioaren lekukoa* (moldatua)

### 1 Aukeratu galdera bakoitzaren erantzun zuzena.

- Nork zeuzkan betaurrekoak?  Mayherne jaunak  Leonardo Volek
- Nori egotzi zioten krimen bat?  Mayherne jaunari  Leonardo Voleri
- Nolakoa zen Leonardo Vole?  Gaztea  Zaharra
- Nola garbitzen zuen zintzurra Mayhernek?  Ura edanez  Eztul eginez
- Akusatua erruduna zen?  Ez  Ez dakigu
- Zaila zen...  akusatua engainatzea  abokatua ezergatik harritzea

**2 Bilatu hitz hauen antonimoak testuan.**

- errugabe ➡ .....
- ahaztu ➡ .....
- zail ➡ .....
- heze ➡ .....
- kamuts ➡ .....
- akusazio ➡ .....

**3 Lotu hitz bakoitza dagokion esanahiari.**

- |                |  |
|----------------|--|
| • abokatu •    | • auziak erabakitzeko tokia                      |
| • epaile •     | • Estatu bateko lege guztien multzoa             |
| • sententzia • | • Zuzenbide-ikasketak dituen pertsona            |
| • auzitegi •   | • lege-hauste larria; adibidez, hilketa bat      |
| • legeria •    | • sententziak emateko ardura duen pertsona       |
| • krimen •     | • auzi batean, epaile batek ematen duen erabakia |

**4 Azaldu zure hitzez esaldi hauek.**

- «... ziurtzat jo zuen atxilotua errudun zela.»  
.....
- «... ikusi ere egin ez zuen aurreko hormari begiratzeari utzi [...] zion.»  
.....
- «Zuk erruduntzat naukazu...»  
.....

**5 Osatu testua adberbio hauek erabiliz: zorrotz, ahots lehorrez, aurrean, lehenago, bederatzietan, etxetik.**

Mayherne mahai atzeko ..... eseri zen. .... zuen gizonari ..... begiratu zion.  
 –Vole jauna, egia osoa behar dut –esan zion .....  
 –Egia besterik ez dizut esan; ....., hiltzailea naiz, baina oker zaude.  
 –Bai hori ..... ere esan didazu, baina emakume hura ..... hil zuten eta zu haren  
 ..... bost minutu lehenago irten zinen.

**6 Erantzun galdera hauei.**

- Zer da testuaren hasiera?  Deskribapena  Elkarrizketa
- Pertsonaiaren ezaugarri ..... aipatzen dira.  
 fisikoak eta psikikoak  fisikoak
- Kontaketa ..... da.  
 objektiboa  subjektiboa
- Pertsonen deskribapenetan ..... ugari dago.  
 aditz  adjektibo
- Sarritan erabiltzen den baliabidea ..... da.  
 konparazioa  hiperbolea

## Bidaia

Amiens-era gauerdian heldu ziren eta Lis d'Or-eko aterpean jaitsi ziren. Ostalariak Lurreko gizonik zintzoena zirudien; bi bidaiariei ostatu eman nahi izan zien aterpearen mutur banatan. D'Artagnan-ek eta Athos-ek logela berean oheratuko zirela erabaki zuten.

Ohea prestatu eta atea barrutik itxi orduko, patioko leiho-atera deitu zuten; beren otseinen ahotsa aditu eta zabaldu zuten. Horrela zen, Planchet eta Grimaud ziren.

–Grimaud bera arduratuko da zaldiak gordetzeaz –esan zuen Planchetek–; jaunek hala nahi badute, ni atea zeharkatuz etzango naiz; horrela, ziur egon zaitezke ez zaizuela inor gerturatuko.

–Zatoz, orduan –esan zuen D'Artagnanek–; arrazoi duzu: ostalariaren aurpegia ez zait gustatzen, jatorregia da.

Gaua nahiko lasaia izan zen. Goizeko ordu biak aldean atea zabaltzen saiatu ziren, baina Planchetek, esnatu eta, aztoratuta<sup>1</sup>, «Nor zaitugu?» oihu egin zuenean, oker zeudela erantzun zioten eta alde egin zuten.

Goizeko lauretan, zalaparta handia etorri zen ukuiluetatik; Grimaud ukuiluzainak esnatzen saiatu zen, eta ukuiluzainak hari joka zebiltzan. Planchet, orduan, patiora jaitsi eta zaldiak zelatzen<sup>2</sup> hasi zen; zaldiak ahituta<sup>3</sup> zeuden. Egoera ordurako kezagarri samarra zen: elkarren segidako gertaera horiek guztiak agian ausazkoak<sup>4</sup> ziren, baina konspirazio baten emaitza ere izan zitezkeen.

Athos gastua ordaintzera jaitsi zen, ostalariak dirua hartu zuen eta, txanpona faltsua zela oihukatuz, atxilotzeko aginduko zuela adierazi zuen.

–Doilorra<sup>5</sup> halakoa! –esan zuen Athosetik–. Belarriak moztuko dizkizut!

Une hartantxe, armez jositako lau gizon sartu ziren alboko ateetatik eta Athosi eraso zioten.

–Harrapatu egin naute! –egin zuen oihu Athosetik, biriketari zuten indar guztia jarriz–. Alde egin, D'Artagnan! Sartu ezproiak<sup>6</sup>, sartu! –eta pistolaz bitan egin zuen tiro.

D'Artagnanek eta Planchetek atean zain zeuden bi zaldiak aske utzi zituzten, haien gainera salto egin zuten, ezproiak sabeletan sartu zituzten eta lauhazka bizian alde egin zuten.

aztoratu<sup>1</sup>: asaldatu.  
zelatu<sup>2</sup>: zaldiei aulkia edo jarlekua ezarri.  
ahitu<sup>3</sup>: guztiz nekatu.  
ausazko<sup>4</sup>: zorizkoa.  
doilor<sup>5</sup>: esker onik gabea.  
ezproi<sup>6</sup>: zaldiak akuilatzeke atala.

Alexandre Dumas, *Hiru mosketariak* (moldatua)

### 1 Esan esaldi hauek egia (E) ala gezurra (G) diren.

- Aterpea Amiens hirian zegoen.
- D'Artagnan eta Athos logela banatan jarri nahi zituen ostalariak.
- Planchetek atea zeharkatuz etzanda egin zuen lo.
- Goizeko laurak baino geroago gelan sartzen ahalegindu ziren.
- Planchetek zaldian lauhazka alde egiteko esan zion D'Artagnani.

**2 Markatu. Zer ziren mosketariak?**

- Mosketea erabiltzen zuten Frantziako erregearen soldaduak.  
 Frantziako Iraultzan mosketoia erabiltzen zuten hiritarrak.

**3 Berridatzi esaldi hauek.**

- «Ohea prestatu eta atea barrutik itxi orduko, patioko leiho-atera deitu zuten.»

*bezain*

- «... eta ukuiluzainak hari joka zebiltzan.»

*ari*

- «Une hartantxe, armez jositako lau gizon sartu ziren alboko ateetatik...»

*leporaino*

**4 Osatu hitzak ate- erabiliz eta lotu hitz berri bakoitza dagokion esanahiari.**

|                     |                        |
|---------------------|------------------------|
| ate + zain = .....  | • ateko irekidura      |
| ate + aurre = ..... | • ate aurrean          |
| ate + arte = .....  | • ataria               |
| ate + leiho = ..... | • futbol-jokalaria     |
| ate + ondo = .....  | • atearen goiko aldea  |
| ate + buru = .....  | • ate ostean, gibelean |

**5 Bete hutsuneak esamolde hauek erabiliz: *oker egon, arrazoi izan, ziur egon***

- –Urak ehun graduan diraki, ezta? –Bai, .....
- ..... gaur ez duela euririk egingo.
- Barkatu, baina ..... : pinguinoek ez dute hegan egiten.

**6 Osatu ariketa adibideari jarraiki.**

oihu egin ➔ oihukatu

- |                      |                        |
|----------------------|------------------------|
| • maite izan ➔ ..... | • ..... ➔ gorrotatu    |
| • ..... ➔ amestu     | • harrika egin ➔ ..... |
| • leher egin ➔ ..... | • ..... Å topatu       |
| • ..... ➔ mindu      | • epaia eman ➔ .....   |

**7 Aukeratu ekintzen deskribapena ondoen azaltzen duen paragrafoa.**

- Ekintzen deskribapena ordena kronologikoan elementu fisiko ugari dituen erritmo bizkorreko testua da. Aditzak nagusi dira, mugimenduzkoak salbu, aspektu burutukoak batez ere. Hots-hitzak sarri agertzen dira.

- Ekintzak deskribatzeko testuak osagai fisiko asko izan behar ditu. Aspektu burutuko aditzek bizitasuna ematen diote ordena kronologikoko kontaktari, eta onomatopeiek eta harridura-markek ekintza osatzen dute.

## Igeltsuaz

igeltsu<sup>1</sup>: minerala.  
 laborantza<sup>2</sup>: nekazaritza.  
 barreiatu<sup>3</sup>: zabaldu, hedatu.  
 zirrimarraka<sup>4</sup>: zirriborroka.  
 primadera<sup>5</sup>: udaberria.  
 izkiriatu<sup>6</sup>: idatzi.  
 izatu<sup>7</sup>: izan.  
 aitzinean<sup>8</sup>: aurrean.  
 gisu<sup>9</sup>: karea.  
 azkartu<sup>10</sup>: indarberritu.  
 flakatu<sup>11</sup>: ahuldu.  
 kasatu<sup>12</sup>: gutxitu, desagerrarazi.

SEMEAK.– Aipatu duzu igeltsua<sup>1</sup> behin baino gehiagotan. Eskaldunek oraingoz ez dute igeltsurik erabiltzen laborantzan<sup>2</sup>.

AITAK.– Ez da oraindik barreiatu<sup>3</sup> gure artean laborantzan igeltsuaren enplegua, baina ez da arras ezezaguna ere, ezen nik neronek ikusi izan dut landetan ezarria.

Bestalde, mende honetan orotara barreiatzen ari dira gizon trebeenek egin izan dituzten proba onak. Suitzako aldean iragaiten bazina martxoan, apirilean eta maiatzean, ikus zenitzake hango landa, soroak denak igeltsu errearen errautsez zurituak. Hango laborariek segurki ez dituzte lan eta gastu horiek hartzen, nonbait zerbait onik ikusi gabe.

Franklin deitzen zen aipamen handitako amerikano batek zer egin zuen bere herritarrei erakusteko nolakoa den igeltsuaren indarra? Joan zen soro zabal baten erdira eta han bota zuen igeltsu-errauts puska bat zirrimarraka<sup>4</sup>. Primadera<sup>5</sup> hastean soroa oraindik gorri-gorria zegoelarik, belarra berdatu zen igeltsuak ukitu izan zuen tokietan. Orduan jendea harriturik gelditu zen, zergatik hitz hauek agertzen ziren belar berriak eginik: HAU IGELTSUZ IZKIRIATUA<sup>6</sup> IZATU<sup>7</sup> DA. Ordotik igeltsu anitz erabiltzen da toki hauetako laborantzan.

SEMEAK.– Sinesten dut hain proba garbia begien aitzinean<sup>8</sup> izateaz geroztik, hango jendea argitu zela.

AITAK.– Bazen zertaz!

SEMEAK.– Bada igeltsu zuria, bada nabarra. Zein da laborantzarako hoberena?

AITAK.– Nabarra da hoberena laborantzarako, zeren gisu<sup>9</sup> gehienik harek baitauka. Belarrak handiarazten ditu sutan bezala. Azkartzen<sup>10</sup> ditu flakatuak<sup>11</sup> diren lurak. Soro hiltetan kasatzen<sup>12</sup> ditu goroldio, ihi eta belar txarrak. Harrak hiltzen ditu ogi, arto, ilar eta beste uztetan. Luzerna, faruxa, trefla eta bazka guzietan on handia egiten die.

Jean Pierre Duvoisin, *Laborantzako liburua* (moldatua)

### 1 Erantzun galderei.

- Zure ustez, Euskal Herriko zer aldetakoak dira pertsonaiak? .....
- Zergatik? .....
- Zertarako erabiltzen zuten igeltsua laborariek? .....
- Zenbat igeltsu mota daude? Zein? .....
- Zergatik da onena nabarra? .....
- Zer hiltzen du igeltsuak? .....

## 2 Bilatu irakurgaian esanahi hauei dagozkien hitzak.

- Landare belarkara, alpapa: l u ..... r ..... a
- Landare lekadun gorakaria: i ..... r r .....
- Artaburuak ematen dituen labore hostoluzea: ..... r t ..... a
- Hiru hostodun landarea, hirusta: t r ..... l .....
- Elikagai askoren lehengaia, garia: o ..... i .....
- Ardien bazkarako landare egokia, hirusta gorria: f ..... r ..... x .....

## 3 Markatu gorri hitzak kolorea adierazten dituen kasuak eta eman beste kasuetan dituen esanahiak.

«... soroa oraindik *gorri-gorria* zegoelarik» ➡ biluzik

- |  |  |
|--|--|
| <input type="checkbox"/> negu gorria = <u>negu hotza</u> | <input type="checkbox"/> miseria gorria = .....          |
| <input type="checkbox"/> abelgorria = .....              | <input type="checkbox"/> Aizkorri (haitz gorria) = ..... |
| <input type="checkbox"/> umegorria = .....               | <input type="checkbox"/> ilegorria = .....               |
| <input type="checkbox"/> ardo gorria = .....             | <input type="checkbox"/> katagorria = .....              |

## 4 Bilatu esaldi hauen antzekoak testuan.

- «Orain arte gure artean ez da hedatu igeltsuaren erabilera nekazaritzarako.»  
.....
- «Udaberria hastean baratzea oraindik biluzik zegoen bitartean...»  
.....
- «Ordutik igeltsu ugari erabiltzen da hemengo soroetan.»  
.....

## 5 Osatu ariketa adibideari jarraiki.

- |                          |                  |
|--------------------------|------------------|
| • berde ➡ <u>berdatu</u> | • zuri ➡ .....   |
| • gorri ➡ .....          | • beltz ➡ .....  |
| • larru ➡ .....          | • urdin ➡ .....  |
| • hori ➡ .....           | • zurbil ➡ ..... |

## 6 Gogoratu azalpen didaktikoen ezaugarriak eta aukeratu erantzun zuzenak.

- Aitaren helburua ..... da.  
 ikastea                       irakastea
- Horrek ..... eskatzen du.  
 argitasuna eta zehaztasuna                       hiztegia lantzea
- Semeak haria gal ez dezan, garrantzitsua da azalpenen ..... zaintzea.  
 ordena                       forma
- Aitak azaldutako gaiaren inguruko ..... ageri da.  
 problematika                       hiztegia
- Azalpena beste nonbait gertatutako ..... baten bidez indartzen du.  
 kasu                       kondaira

## O Pantanal

Inguruko jendeak harro dioenez, Pantanal Amerikako Santuario Biologiko handiena da. Oso eremu zabala betetzen du, Espainiaren edo Frantziaren erdi ingurua, eta Paraguai, Bolivia eta, zati handiena, Brasilen artean banatuta dago.

Ozeano Atlantikotik 2.000 kilometrora egon arren, itsasoaren mailatik 100 edo 200 metrora baino ez dago, lurralde altuagoz inguratuta. Berauetatik jaisten diren errekek Paraguai ibaia eratzen dute eta honek Pantanal osoa zeharkatzen du alderik alde.

Eurien sasoiari, urritik martxora arte, errekek ia eremu guztia ureztatzen dute eta urtearen beste erdian, lehortean, uriolak<sup>1</sup> amaitu, zelaiak agertu, eta urrituz doazen putzuak eratzen<sup>2</sup> dira. Berauetan pilatzen dira Pantanaleko biztanle ugariak eta ikusgarrienak, jakareak –kaimanak–, eta bakartuta geratu diren arrainekin elikatzen dira euren putzua agortu arte. Gero beste bat bilatzen dute, berriro lehortu arte, eta horrelaxe jokatzen dute euritea itzuli bitartean.

Jakareak desagertzeko arriskuan daude eta debekatuta dago akabatzea. Dena dela, legez kanpoko ehiztariak ugari dira Pantanal osoan eta erruki barik hiltzen dituzte milaka eta milaka urtero, euren larruaren zati txiki bat, sabelaldekoa, aprobeitzeko gizakiontzako arropak, apaingarriak eta abar egiteko.

Transpantaneira pistan sartu eta lehenengo jakarea sasi artean ezkutatuta ikusi orduko emozio handia sumatu<sup>3</sup> nuen, nire begi pribilegiatuek miretsi<sup>4</sup> ahal zutenagatik, baina aurrera joan ahala leku guztietan ageri zirela konturatu nintzen, bila ibili gabe: erreka eta putzuen bazterretan, ur- azalean eguzkia hartzen... Azkenerako ohiko ikuskizun bihurtu ziren eta batzuetan ia ostikoka aldendu<sup>5</sup> behar nituen pistatik pasatzen uzteko.

uriola<sup>1</sup>: uholdea.  
eratu<sup>2</sup>: sortu.  
sumatu<sup>3</sup>:  
antzman.  
miretsi<sup>4</sup>: asko  
estimatu.  
aldendu<sup>5</sup>: urrundu.

Jon Arretxe, *Tuparen seme-alabak* (moldatua)

### 1 Markatu aukera.

- Pantanalek Espainiaren edo Frantziaren  erdia  herena adinako eremua hartuko luke.
- Paraguai ibai urtsuak Pantanaleko lurraldea alderik alde  zeharkatzen du.  ureztatzen du.
- Lehorte-garaiari, apiriletik irailera, urrituz doazen  uriolak  putzuak eratzen dira.
- Pantanaleko biztanle ikusgarrienak  jakareak  arrainak dira.
- Milaka eta milaka jakare  hiltzen  elikatzen dituzte urtero.
- Jakareen  sabelaldeko  bizkarreko larrua baino ez dute erabiltzen.
- Pistan sartu eta apur bat aurrerago,  leku guztietan  ezkutatuta zeuden jakareak.

**2 Bilatu hitz hauen sinonimoak irakurgai.**

- hedatsu ➡ .....
- metatu ➡ .....
- profitatu ➡ .....
- ibai ➡ .....
- asko ➡ .....
- jipoika ➡ .....

**3 Berridatzi esaldi hauek.**

- «Ozeano Atlantikotik 2.000 kilometrora egon arren...»  
*Nahiz* .....
- «... eta horrelaxe jokatzeko dute euritea itzuli bitartean.»  
 ..... *arte.*
- «Jakareak desagertzeko arriskuan daude eta debekatuta dago akabatzea.»  
 ..... *tzeaz* .....
- «... lehenengo jakarea sasi artean ezkutatuta ikusi orduko emozio handia sumatu nuen...»  
 ..... *bezain* .....

**4 Bete hutsuneak ezkerreko hitzak erabiliz.**

- Joan den urtean ehiztariak 700 jakare ..... zituzten.
- Zumalakarregi Lehen Karlistaldian ..... zen.
- Marilyn Monroek bere ..... omen zuen.
- Pernando Amezketarra aran gehiegi janda ..... zen.
- ..... itsasoari begira ..... nahi nuke.
- Sutara erortzen bada, ..... du.

**5 Bilatu testuan *ur* hitza duten hitz eratorriak eta uraren arlo semantikoko hitzak.**

| UR +                  | URAREN ARLO SEMANTIKOA |
|-----------------------|------------------------|
| <i>ureztatu</i> ..... | <i>ozeano,</i> .....   |
| .....                 | .....                  |
| .....                 | .....                  |
| .....                 | .....                  |

**6 Ordenatu zenbaki bidez paragrafo honetako esaldiak.**

- Eta, horretarako, erakargarri gerta daitezkeen ezaugarriak aipatu ohi ditu.
- Lehenik eta behin, esan beharra dago idazleak informatu egin nahi duela
- Hala ere, azalpenak askotan objektiboak emanagatik, ez da beti hala izaten.
- Erabiltzen dituen baliabideen artean hauek aurki ditzakezu:
- Hau guztia laburbilduz, azalpen informatiboen helburu nagusia erakustea dela eta ez irakastea esan dezakegu.
- Leku-denborazko lokailuak, konparazioak eta esapide edo hitz bereziak.